


IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Auzolanean
berrituta**

Kaixo herrikide!!!

Gabon kontuekin gatz oraingo alean. Ez ahaztu Olentzero eta Maridomingi iristear direla eta urteroko ekintzak ez direla faltako. Dena dela, bestelako kontuak ere bildu ditugu: kantxako belardian

egindako auzolana, BOE baten zozketa, Neguko Pala Txapelketaren hasiera, Txalingo txaletarekin gertatutakoa... Horrez gain, Aitor Etxeberriari elkarrizketa egiteko tarte hartu dugu.



Araitx Otamendik Euskal Herriko gazte manejatzaile onenaren saria lortu zuen.

Gazte manejatzaile onenaren sari eta guzti, Ondasartekoak

Ondasarte baserrikoak Tolosan izan ziren azaroak 4-5 bitarte Euskal Herriko frisiar arrazako txapelketan eta sari batzuk lortu zituzten: 2. atalean (12-16 hilabeteko bigarak), Barakalek 3. postua lortu zuen eta 4. atalean (20-26 hilabeteko bigarak), Harribeltzek 1. postua lortu zuen. Horretaz gain, bigaren finalean, Harribeltz azpitxapeldun gelditu zen. Sari berezi bat ere lortu zuten: Araitx Otamendik Euskal Herriko gazte manejatzaile hobereenen saria lortu zuen.

Abenduaren 4an, berriz, Gordexolara joan ziren eta sari batzuk lortu zituzten han ere: 2. atalean (12-16 hilabete bitarteko bigantxak), Barakal bigantxak 1. postua lortu zuen eta atal berean, Judit bigantxak 2. postua.

45 bikote lehian, hasi berri den Pala Txapelketan

Hasi berri da IV. Neguko Pala Txapelketa. Abenduaren 14an jokatu zen lehenengo partidua. Aurten denera, 45 bikote ariko dira lehian: 2. mailan gizonezkoetan 30 bikote, nesketan teniseko pilotarekin 10 bikote eta 1. mailan gizonezkoetan 5 bikote.

Iaz egin bezala, astean zehar

jokatuko dira ligaxkako partiduak: asteazken, ostegun, ostiral eta larunbat goizetan. Ondorengo partiduak ostiral eta larunbatetan izango dira. Final laurdenak eta finalerdiak martxoak 10, martxoak 17 eta martxoak 24 jokatuko dira. Finala, berriz, martxoaren 31n jokatuko da.

500 euroko saskia eskuratu nahi al duzu?

Aurten ere, 500 eurotan baloratutako saski eder bat zozketatuko da. Bertako produktuekin osatutako saskia izango da eta zozketa urtarriaren 6an egingo da, El Niñoko loteriarekin. Bertatik lortutako dirua herrigintzarako izango da. Iaz Kooperatibako parkina egiteko eta San Pedroetarako erabili zen.

Herritarren laguntza beharrezkoa izango dela azaldu dute antolatzaileek. Bi modu izango dira laguntzeko:

- Tako bat hartu. Tako bakoitzean 25 boleto daude (50€). Animatuz gero, jarri harremanetan: 615764389 (Iraitx).

- Boleto sueltoak erosi. Kultur etxean eta IKOn egongo dira salgai 2 euroan.

Lokalaren erabileraren inguruan hizketan

Apaiza eliza atzeko lokala uzteko prest azaldu zenetik, Herri Kontseilua gaia lantzen ari da. Besteak beste, abenduaren 5ean bilera bat egin zuten lokala erabiltzeko interesa duten eragile eta herritar desberdinek (Jubilatuak, gazteak, Ieltxok...). Zer erabilera emango liokeen hizketan aritu ziren.

Urtarrilaren 7an hitzordua Bilbon

Urtarrilaren 7an izango da presoen aldeko manifestazioa Bilbon Sarek antolatuta eta igeldotarrei dei egiten diete bertaratzeko (oraindik ez dute zehaztu autobusa egongo den). Manifestazioa 17:00etan abiatuko da La Casillatik eta Zabalbururako bidea egingo du "Etxera bidea gertu" lemapean.

Babes Ofizialeko Etxebizitza bat saltzeko zozketa egingo da

Herri Kontseiluak jakinarazi du Igeldoko Babes Ofizialeko Etxebizitza bat salgai jarriko dela eta zozketa bidez erabakiko dela nori saldu. Etxebizitza horiek kooperatiba baten bidez eraiki ziren eta horien banaketa zozketa bidez egin zen bere garaian, igeldotarrek lehentasuna izanik. Orain, etxebizitza horren jabeek hasierako baldintza berdinak errespetatuz egin nahi dute salerosketa. Behin zozketa egindakoa, Donostiako Udalak eta Etxebidek BOErako ezarritako baldintzak bete beharko ditu erosleak. Alde honen erabakimena ez da IHK-ren ardura izango.

Bost talde osatuko dira, lehenetasunen arabera banatuta, eta talde bakoitzaren barruko lehenetasuna zozketa bidez ezarriko da.

Izena emateko, abenduaren 26tik aurrera

Zozketan parte hartzeko izen ematea abenduaren 26tik urtarrilaren 13ra izango da. Gainerako faseak honakoak: izen emandakoen arteko behin behineko taldekatzeen publikatzea (urtarrilak 17); erreklamazioak egiteko epea (urtarrilak 18-20); behin betiko taldekatzeen publikatzea (urtarrilak 23); taldekatzeen araberrako lehenetasun zozketa (urtarrilak 27, ostirala, 19:00).

Zozketan parte hartu nahi dutenek izena eman eta dokumentazioa aurkezteko Itsas Aurre kultur etxera zuzendu beharko dute eta tramitazioa egin, IHK-ko langileak emandako argipenak jarraituta. Tramitazio hau bulegoko ordutegian egingo da.

Epez eta ordutegiz kanpo ez da inongo tramitaziorik onartuko. Harremanetarako: 606311734 edo herri-kontseilua@igeldo.eus.

- 1. TALDEA:** Igeldon modu jarraituan erroldatua egotea gutxienez azken BOST URTEETAN / Noizbait 15 URTEZ MODU JARRAITUAN erroldatua egon izana.
- 2. TALDEA:** Noizbait Igeldon erroldatua izan dena edo egun dagoena.
- 3. TALDEA:** Igeldon lanean modu jarraituan ari dena gutxienez azken BOST URTEETAN / Beren seme-alaba(k) Igeldoko Herri Eskolan matrikulatuta duten gurasoak.
- 4. TALDEA:** Gutxienez azken BOST URTEETAN Donostian erroldatutakoak.
- 5. TALDEA:** Legeak ezarritako baldintzak betetzen dituen beste edozein pertsona.

Neguko ordutegia jarri dute IKOn

Abenduan zehar, astero, bono bat zozketatuko dute erosleen artean.

Abenduaren 5etik aurrera, neguko ordutegiarekin ari dira lanean IKOn. Astelehen, astearte eta asteazkenetan eguerdi partean itxita egongo da. Ordutegia: 9:30-14:00 eta 16:00-20:00. Ostegun eta ostiraletan ordutegi jarraituan egongo da zabalik: 9:30-20:00. Larunbatetan, berriz, goizez egongo da irekita: 9:30-14:00.

Bonoen zozketa

Aurreko urteetan bezala, abenduan zehar, astero, 25 euroko bono bat zozketatuko dute erosleen artean.

Garbiketa auzolanean

Urriaren 12an, auzolanean, garbiketa egin zela ere aipatu dute. Dozena bat herritar elkartu ziren eta beheko pisua eta kanpokaldea garbitu zituzten.



«Txaleta lizentziarik gabe eraiki da»

Txalinen eraiki duten txaletaren inguruan prentsurrekoa eman zuten Herri Kontseiluak, Ieltxok, Haritzaldeak eta hainbat igeldotarrek azaroaren 24an. Bertan salatu zuten Donostiako Udalak txalet ilegal bat eraikitzea onartu duela Igeldon eta jakinarazi zuten epaitegietara jo dutela Ieltxok eta Haritzaldeak.

Gertatutakoa azaldu zuten: «Martuteneko baserri baten espropiazio batetik dator obra. 2/2006 Lurzoru Legearen 30. artikuluan oinarriturik, Igeldon eraikitze baimena ematen die Udalak jabeei. Baina Legearen 30.4 artikulua exigitzen duen justifikazio txostenik ez dago. Eta Udalak baserria berreraikitze baimena ematen die honakoa jakinik: Martutenetik 8 km-ra dagoela, partzela baserriko jabeena ez dela, enpresa inmobiliario batena dela eta bertan etxebizitza izateak sekulako balioa izango duela. Argi eta garbi negozioa egiteko helburuarekin. Inmobiliariak, lurren jabeak, lizentzia erosi zien baserriaren jabeei eta ondoren egungo jabeei saldu zien 700.000 eurotan. Nola da posible hori baimentzea?».

Beraien esanetan, Lurzoruaren Lege hori ez da helburu horrekin sortu eta lotsagarria egiten zaie txeke zuri moduan eta espekulaziorako erabiltzea: «Hasierako etxebizitzaren aurrekontua 419.000 eurokoa zen; egin dutenak 1.250.700 euroko aurrekontua du; HIRUKOITZA! Eta horri lizentziaren 700.000 euroak gehitu behar zaizkio».

Tipologia, bolumetria, pistina... ilegalak

Kezkatuta azaldu ziren honek ireki dezakeen bidearekin: «Udalaren teoriaren arabera, espropiatu den edozein baserri eraiki daiteke babes berezirik ez duen nekazal lurretan. Hori horrela, Igeldon bukatu dezakete espropiatu ondoren berreraiki behar diren ustezko baserri guztiek, eta hau onartezina



Herri Kontseiluak, Ieltxok, Haritzaldeak eta hainbat herritarrek prentsurrekoa eman zuten.

da. Igeldoko lurrak babestu nahi ditugu, eta baita Euskal Herriko beste inguruetakook ere».

Gainera, Udalak baserria berreraikitze baimena ematen duela eta horren orde, txalet moderno bat egin dutela salatu zuten, igerileku eta guzti: «Eta pistina ere ilegala da. Eraiki ezin den nekazal lurretan, ezin da pistinarik eraiki». Legeak bolumetriaren inguruan dioena ere ez dutela errespetatu azpimarratu zuten: «Martuteneko baserriak 406,8 m2 zituen bizitoki bezala eta ez zuen sotorik. Udalak 1.145 m2 dituen etxebizitza bat egiteko baimena ematen die soto eta guzti».

Bi lizentzia ilegal eta txaleta lizentziarik gabe

Espedientea irregularitasunez betea dagoela argi utzi zuten, bi lizentzia ilegal eman direla eta txaleta lizentziarik gabe eraiki dela: «bi lizentzia ilegal eman ditu Udalak eta bi lizentzia horietako proiektuek leku desberdinean kokatzen dute etxea. Ba hori gutxi balitz, azkenean, etxea beste kokaleku batean egin da, inongo lizentziarik eskatu gabe eta jaso gabe. Ez gaude ados ezta kokaleku batekin ere, baina nola onartu du Udalak lizentziarik gabe eraikitzea?».

Lizentziak ilegalak izatearen

arrazoia azaldu zuten: «Sarbiderik ez duen partzela batean eman dira lizentziak, legea erabat urratuz. Eta partzela horretara sartzeko, okupatzen ari dira udal partzela bat inongo baimenik gabe. Eta horrez gain, depositura doan udal bidearen sarreran atea jarri dute».

Ur depositua handitzeko traba

Txalinen Udalaren ur depositua dago txaleta eraiki duten zonaldean eta obra honek eragin zitzakeen kalteen inguruko txosten bat presatatu zuen Uraren Udal Zerbitzuak. Esandakoak ez dituzte aintzat hartu: «Alde batetik, ateara aipatzen da, atea bidearen goiko aldean jarri beharko dela esanaz, deposituaren ondoan. Baina bide hasieran jarri dute. Eta bestetik, ez da egoki ikusten depositutik hain gertu eraikitzea etxea etorkizunean depositua handitzeko aukera oztopatzen duelako».

Salatzaileek eskaera argia egin zuten: «Eskatzen dugu Txalingo obrak bertan behera utzi ditzatela, etxebizitza bota dezatela eta ingurua lehengora bueltatu dezatela. Eta horrez gain, Udalak emandako lizentzia horiek baliogabetzea. Eta eskatzen dugu baita ere Udal arduradunek azalpenak eman ditzatela. Zergatik onartu da hau dena?».



Urriaren 21ean egin zen batzarra eta 60 herritar inguru elkartu ziren. Bertan azaldutako ideia, kezka eta iritziak onuragarriak izan ziren prozesurako.

Igeldok izan ditzakeen eskumen eta zerbitzuak azaldu zituzten

Igeldoko Tokiko Entitate Txikiari dagokionean, hasierako proposamen bat prest dago (borradore bat) eta Herri Kontseiluak eta TET Batzordeak batzarra egin zuten urriaren 21ean herritarren iritzia biltzeko. Siadecok prestatutako proposamenak Igeldok izan ditzakeen eskumen eta zerbitzuak biltzen ditu eta horien berri eman zuten batzarrean. 60 herritar inguru elkartu ziren eta azaldutako ideiak, kezka eta iritziak onuragarriak izan ziren prozesurako.

Eskumen propioak eta delegatuak

Igeldok bi motatako eskumenak izango lituzkeela azaldu zuten.

ESKUMEN PROPIOAK (15): Bide publikoen mantentze eta eraberritze lanak; Parkeak, lorategiak eta berdeguneak; Bide eta fatxaden garbiketa; Herri-argiteria; Hondakinak; Ur-hornidura eta saneamendua; Hezkuntza arloa; Gainerako eraikin publikoak; Hilerri-zerbi-

tzak; Adineko pertsonen sustapena; Kultur jarduerak eta jaiak; Euskararen sustapena; Kirol jarduerak eta kirol ekipamenduak; Partaidetza, berdintasuna, gazteria, aisialdia, hezkuntza ez arautua; Udal zerbitzuen harrera bulegoa eta administrazio orokorra.

ESKUMEN DELEGATUAK (5) hitzarmen bidezkoak: Planeamendu urbanistikoa; Etxebizitza sustapena; Gizarte zerbitzuak; Ingurumen zerbitzuak; Turismoa eta ekonomia-garapena.

Langileak eta aurrekontua

Proposamena da 5 lagunekoa lantalde propioa izatea eta idazkaria: Hirigintza-mantenu arloko teknikaria; Garapen eta zaintza soziokomunitarioko teknikaria; Administrazio Orokorreko Teknikaria; Zerbitzuetako 2 langile balioanitzak; eta Idazkari/kontu-hartzailea (%33ko lanaldia).

Horrez gain, gutxi gorabehera ko aurrekontua ere azaldu zuten:

1.255.000 €.

Zalantzak eta ekarpenak

Proposamena abiapuntu bezala ondo ikusten dela azaldu zuten batzordeko kideek, eta alderdi politiko guztiek ere halaxe adierazi dutela. Dena dela, Igeldotik zalantza batzuk jakinarazi zaizkie: Teknikoki eskumen horiek nola gauzatuko diren zehaztea falta da. Funtzionamendua nola izango den zehaztu behar da: langileak, kontratazioak, prozedurak, harremana... Udala lanketa hori egingen ari dela argitu zuten batzarrean.

Horrez gain, ekarpen batzuk ere egin zaizkio borradoreari Igeldotik. Batez ere eskumen delegatuetan: Hirigintza eta Etxebizitza arloetan.

Hurrengo pausuak

Udalaren argipenen zain daude orain denak. Ondoren, ekarpenak kontuan izanda, Siadecok bigarren txosten bat prestatuko du eta txosten horren inguruko eztabaida emango da.



Aitor Etxeberria helmugan, aurtengo Igeldoko lgoeran. Errekor berria jarri zuen: 24:07.

«Atletismoak eman didan gauzarik onena, ezagutu dudan jende guztia da»

Aitor Etxeberriak 9 bat urte egin ditu atletismoan punta-puntan lehiatzen.

Ibilbide ederra egin du urte hauetan zehar; Igeldoko lgoeran errekor berria jarrita errematatu du, besteak beste. Lortutakoarekin pozik, etapa bat amaitutzat eman du.

Behobiarekin bukatutzat eman duzu punta-puntan lehiatzeko ibilbidea, ezta?

Bai, esan dezaket nire buruari exigituko diodana ez dela berdina izango atletismoari dagokionean.

Aurten dexente jaitsita ibili naiz egia esan, nahiz eta momentu puntual batzuetan zuzen eta ongi jarraitu entrenatzailearen aginduak.

Zergatik hartu duzu erabaki hori?

Ba gehienbat momentu bakoitzean nahi dudana egin nahi dudalako. Gauza dexente alde batean utzi behar dituzu atletismoan %100 eman nahi baduzu. Momentu ona da ditudan beste plan eta helburuak betetzeko.

lazko Behobia ez zen nahi bezain ondo joan, eta

aurtengoarekin eman diozu modu batean bukaera. Zer moduz joan da? (13. Postua - 01:04:47, iazko denbora hobetuta)

Ezin ditut azken bi Behobiak konparatu. Iaz irabazteko borrokan egon behar nuenaren sentsazioa daukat oraindik. Gertukoenek, eta batez ere nire entrenatzaileak eta nik, bagenekien zer eta nola entrenatu nuen. Helburua zein zen nahiko garbi geneukan. Azken astea iritsi zen eta gauzak okertu ziren. Eskolan nire ikasle taldea etxeratu zuten COVID positibo asko genituelako eta ni ere kili kolo nenbilen. Lasterketara ez nintzen kondizio onetan iritsi eta maila horretan edozein arazo, ordaindu egiten duzu.

Aurten aldiz lasai atera nintzen, atzean. Lehengo urteko forma fisikoarekin alderatuta, forma exkaxagoan iritsi bainaiz. Baina lasterketa nahiko polita egin nuen. Hala ere, iazkoak balio gehiago dauka niretzat. Azken momentu arte, ez nuen etsi eta egoera hartan hamargarren bukatzea, niretzat izugarria da, gutxi baitakite azken egunetan zenbat ordu lo egin nituen eta... Jajajaja!

Atzera begiratuta, ze balorazio egiten duzu urte hauetan lortutakoaz eta egindako ibilbideaz?

Atzera begiratu eta atletismoak eman didan gauzarik onena, ezagutu dudana jende guztia da. Taldekideak adibidez, gaur egun oso lagun onak ditut. Batzuk lagun minak. Dugarik gabe hori izan da lortu dudana lorpenik garrantzitsuena.

Noiz hasi zinen lehiatzen eta nolatan?

Txikitatik hasi nintzen lehiatzen nik uste. Nire anaia eta ni, oso lehiakorrak gara eta gutxi behar dugu lehiari jartzeko. Niretzako eredu onena bera izan da. Bere mailara gerturatzeko %150 eman behar izan dut, eta horri esker etengabe hobetzen joan naiz. Joritz berezia da, kiroltan aparta; gaitasun fisiko onak izateaz gain, buruz oso azkarra da, konpetitzen bikaina. Eta noski, beti ondoan izanda, oso lagungarria izan zait.

Korrika berriz, Igeldoko krosa izango zen lehen lehiaketa. 2000garren urtean, bederatzi urterekin egin nuen lehen aldiz Igeldoko Igoera, 41 minututan.

Baina serio lehiatzen, 22-23 urterekin edo hasiko nintzen korrikan. Arraunean nenbilela esfortzu proba bat egin zidan gaur egun nire entrenatzailea denak. Bere taldearekin entrenatzeko aukera eskaini zidan eta hasiera batean, zalantzak banituen ere, arrauna ez nuelako utzi nahi, ondorenera konbentzitu egin ninduen.

Real Sociedad taldean aritu zara, ezta?

Bai. Goierri - Garaia, Atletiko San Sebastian, Apalategi

eta Real izan dira nire taldeak. Apalategin familia txiki bat ginen, nirekin entrenatzen zutenak bertan baitzeuden. Maila aldetik aldiz, Realarekin desberdina izan da. Olinpiadetan parte hartu duten atleten kontra konpetitzeko aukera izan dut Realari esker.

Urte hauetako lorpen aipagarrienak zuretzako?

800 metrotatik 10.000 metro arteko distantzia guztietan Euskadiko txapeldun geratzeak niretzat balore handia dauka. Bestalde, 800an eta 1500an Gipuzkoako errekorrak oso gertu izan nituen, zentesimetara gelditu bainintzen 2020an.

Atera gabe geratu den arantzarik baduzu?

Zerbait esatearren, 2021eko Behobia, nahi ez nuen amaiera izan zuelako. Baina, lehen aipatu moduan, oso harro nago dena eman nuelako.

Zuretzako lasterketarik gustokoena?

Igeldoko Igoera eta Behobia. Igeldoko Igoera etxekoa da, bertakoa. Txikitan lehenengo aldiz atera nintzenean, berehala pentsatu nuen lasterketa hori irabazi behar nuela. Motibazio bat zen niretzat eta oraindik izaten jarraitzen du.

Behobia aldiz, dagoen ambienteagatik eta gipuzkoar korrikalari batentzat suposatzen duen guztiagatik.

Nolako korrikalaria zarela esango zenuke?

Inoiz etsitzen ez duena eta errematatzailea. Azkarra azken metrotan. Erresistentzia izatea garrantzitsua da, baina, azkarra izateak garaipen asko ematen ditu.

Urte behintzat ez da gaizki joan, ezta? Espero gabe, Euskadiko pista estaliko txapeldun izan zinen 1.500m eta 3.000m-ko probetan, Igeldoko Igoeran ere errekor berria jarri zenuen (24:07)...

Urte arraro joan da. Nahiko txukun ibili naiz emaitzen aldetik, baina ez naiz agian zenbait alderditan oso profesionala izan. Hala ere, nahiko ezustean, Igeldon denbora polita egitea lortu nuen. Baldintza onenak zeuden niretzako. Dena bikain atera zitzaidan eta asko poztu nintzen txikitan jarritako beste helburu bat lortuta.

Lasterketa horretan gainera, jende asko eduki dut presente. Etxekoak, lagunak, taldekideak, entrenatzaileak... Bukatu bezain laster ere, nire Igeldoko bi osabekin oroitu nintzen. Irribarre txikiren bat atera zitzaidan negar malko batek lagunduta. Ziur nago dauden tokian daudela, beraiek ere lagundu zidatela. Eta astebetara egin zidaten omenaldia ere, ezin da hobetu. Oso esker-tuta nago. Egun hori ez dut inoiz ahaztuko.



UPV/EHUko 10km-ko lasterketan askotan hartu du parte Etxeberriak. Aurten irabazi du lehenengo aldiz.

Pentsatzen dut nahiz eta orain arteko mailan lehia-tu ez, korrika egiten edo kirola egiten jarraituko duzula. Ze asmo daukazu?

Kirola egiten jarraituko dut, baina plan espezifikorik gabe. Korrika, pala, pelota, futbola... Kirola zainetan daramat.

Puri-purian dauden mendi lasterketek ez al zaituzte tentatzen?

Bakarren bat egingo dut, baina ez didate bereziki mendiko karrerek tentatzen. Hori bai, Zegama-Aizkorri ikustera joaten naizen bakoitzean, oilo ipurdia jartzen zait. Jajajaja!

Erraza izango al da zuretzat zure buruarekiko exigentzia maila jaistea?

Ez. Nire bizitzako eremu ia denetan oso exigentea naiz nire buruarekin: kirolean, lanean, pertsona bezala balore onak izaten... Txikitatik jarrera hori izan dut eta ez naiz aldatuko.

Urte bukaera hor daukagu, San Silvestrean ateratzeko asmoa duzu?

Noski aterako naizela. Aurten gainera, Igeldoko ba-

tzuk ateratzekoak gara. Giro bikaina egoten da eta modu bikaina da urteari bukaera emateko.

Orion herritar batzuk entrenatzen dituzu, ezta? Eta aurten, Igeldon emakume talde bat ere entrenatzen hasi zara. Zer moduzko esperientzia?

Orion orain Iñaki Usarralderekin nabil. Bestalde, Lasarte eta Goierriko gazte batzuei entrenamenduak bidali izan dizkiet (gaur egun nire entrenatzailearekin daude maila jakin bat dutelako). Polita da izan duten bilakaera ikustea. Azkenean bizi estilo sano bat eskaintzea da nire helburua. Detaile batzuk zainduta, asko hobetu daiteke eta beraiek dira adibiderik onenak.

Igeldokoekin aldiz, aurten hasi naiz. Talde polita da eta esan, nik hasiera batean pentsatzen nuena baino maila askoz hobea dutela. Meritu handia daukate: umeak, lana, korrika...

Pixkanaka joango gara, azken batean deskonektatzeko eta disfrutatzeko momentu bat izan behar baitu beraientzat. Baina Igeldoko Igoera batean parte hartzen badute... herritarrak harrituta geldituko lirakeke beraien markekin. Ea animatzen diren!

Igeldoko EHBildu martxa onean

Azaroan zehar hiru deialdi izan dira Igeldoko herritarrei zuzenduta Igeldoko EHBilduren aldetik. Lehena azaroaren 2an izan zen, egun horretan herri batzarra zegoen deituta kultur etxean. Bertan, bizi dugun egoeraren irakurketa, kurtso politikorako plangintza eta Igeldora begirako asmoei buruz hitz egin zen elkartutakoen artean. 22 lagun inguratu ziren.

Egun hori aprobetxatu zen igel-dorarrak azaroako bigarren zitara gonbidatzeko bideotxo bat grabatzeko, azaroaren 12an Bilbon deitutako manifestaziora, alegia. Jendetsua izan zen Bilboko mobilizaioa, Igeldotik ere olatu geldiezina osatzera joateko autobusa antolatu zen eta 30 lagun apuntatu ziren eta kotxez ere joan zen jende gehiago herritik.

Energiaren alorrean, Orexa adibide

Azkenik, azaroaren 23an "Energia



Batzarrean elkartutakoek Bilboko manifestaziora joateko deialdia egin zuten.

eskubidea bermatzeko adibidea: Orexa" izenburu zuen hitzaldira joateko gonbita luzatu zieten herritarrei arratsaldeko 19tan Kultur etxean. Bertan Eneko Maiotz izan zuten hizlari, Orexa Energia berriztagarrien kooperatibako lehendakaria eta Oresako alkate ohia.

Azaldutenez, interesgarria izan zen beraien herrian aurrera eramantzen dituzten proiektu ezberdinen berri izatea eta energiaren alorrean komunitate bezala eman daitezkeen aurrera pausuen adibidea ezagutzea. Hitzaldira ere herritar ugari gerturatu ziren, 20 bat lagun.

Sexualitateaz eta elikagai osasungarriez aritu dira Jubilatuak

Jubilatuak hainbat hitzaldi eskaini dituzte udazkenean zehar eta pozik daude izandako erantzunarekin. Alde batetik, sexualitatearen inguruan bi hitzaldi izan dituzte eta horietan 25 pertsonak hartu dute parte. Gai honen inguruan iritzi ezberdinak egon direla, gaiak jakinmina sortu duela eta zentzu horretan onuragarria izan dela azpimarratu dute. Bestetik, abenduaren 14an, Bizitza eta Elikagai osasungarriak izan zituzten hizketagai. Ondoren, sukaldaritzako saio praktikoa izan zuten.

Batzarra, otsailaren 18an

Hitzaldiez gain, jakinarazi dute



Jubilatu Elkarteko batzarra otsailaren 18an egingo dutela. Bertan, aurtengo aktibitateen balantzea azalduko dute eta datorren urte-

ko aurrekontua ikusteko aukera izango da. Horrez gain, elkartearen izena aldatu eta logotipoa erabakiko da.

Eta jarrai dezagula urte osoan!

Abenduaren 2, 3 eta 4an ekintza desberdinak izan ziren Igeldon, Euskararen Egunaren harira. Euskaraldia ere orduantxe bukatu zen 15 eguneko ariketaren ostean. Egun hauetan, euskararen erabilerari indartzeko saiakera egin dute askok askok. Igeldon antolatutako ekintzek ere agerian utzi dute euskararen edozein arlotan erabiltzeko hizkuntza dela. Beraz, gainerako egunetan ere bide beretik jarraitzea besterik ez zaigu geratzen! Euskarak 365 egun!



Kantxako belardia berrituta, auzolanean

Eskolako kantxa ondoan belardi bat dago eta bertako espazioa berritu egin dute elkarlanean eta auzolanean. Egurrezko etxetxo bat, mahai bat aulkiekin eta gupil eta egurrezko zirkuitu bat jarri dituzte. Proiektua aurreko ikasturtean hasi zuten eta azaroaren 26an eraman zuten aurrera ikasle, guraso eta irakasleek elkarrekin.

Azaldu dutenez, iaz, ikasleen nahiak entzun eta aukera desberdinak aztertu zituzten BATU bileretan (ikasleen ordezkarien bilerak). Guraso taldetxo bat ere koordinaketa lanetan aritu zen eskolarekin guzti hau aurrera eramateko (materiala, lanak...), baina proiektua oso bideratua izan arren, ez zuten aukerarik izan burutzeko. Aurten, ikasturtea hasi bezain pronto, proiektuari heldu zioten.

«Goiza primerakoa izan zen!!! Giro apartan aritu ginen lanean, ikasle, guraso eta irakasleak. Mila esker berrantolaketa hau aurrera eramaten lagundu duzuen guztioi!!!» adierazi dute.



Iluntasunaz eta beldurraz gozatzen

Aurten ere Igeldon, Gau Beltzaz gozatzeko ekintzak antolatu dira. Itxuraz, beldurra, iluntasuna, zirrara, GOXOKIAK,... oso gogoko dituzte egungo haur eta gazteek eta Halloween delako festa, euskaldunon hitzetan Gau Beltza, gure ospakizunen artean txertatzen ari dela azaldu dute antolatzaileek. Hori horrela, arratsaldean ipuin kontalaria izan zen eta beldurrezko istorio zirraragarriak izan zituen ahotan. Ondoren, hanburgesa buffeta izan zuten kultur etxean.

Azkenik, mozzorroz eta margoz apaindutako ume eta gazteak herrian zehar ibili ziren, iluntasunaz eta beldurraz gozatzen.



GABONAK IGELDON 2022



.Abenduak 11.
17:00etan Entsegua

.Abenduak 17.
16:30 – 17:30 entsegua
17:30etan merienda
Ondoren tailerra eta
herria apaindu

.Abenduak 24.
14:30etan Gabon
eskearen hasiera
plazatik
20:00etan Olentzero eta
Maridomingiren
etorrera

.Abenduak 31.
14:30etan Gabon
eskearen hasiera
plazatik